

TOLOSAKO UDALA

Iragarkia

Tolosako Udaleko Osoko Bilkurak, 2005eko martxoaren 22an, hasierako onarpena eman zion Terrazak Bide Publikoan Jartzea arautzen duen Ordenantzari. Ordenantza 30 egunez jendaurrean egon da eta ez inork ez du erreklamaziorik aurkeztu. Beraz, Osoko Bilkurako akordioan xedatutakoari jarraituz, Ordenantza behin betiko onartutzat jotzen da. Hori horrela, Ordenantzaren testu osoa argitaratuko da orain.

Ebazpen hau behin betikoa da, eta bide administratiboari amaiera ematen dio. Ebazpen honen aurka honako errekurtsio hau jar daiteke: Administrazioarekiko auzi errekurtsioa Donostiako Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, argitara eman eta biharamunetik kontatzen hasita, bi hilabeteko epean.

Tolosa, 2005eko azaroaren 9a.—Alkatea. (10901)

Bide publikoan terrazak jartzeko udal ordenantza erregulatzaileria.

1. artikulua. Aplikatutako araudia.

Ordenantza hau eman da honako xedapen hauen arabera: 1985eko Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 49. eta 85. artikulua, 1986ko Toki-Erakundeen Ondasunen Araudiko 77. artikulua, 1986ko Toki-Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiko 41. artikulua eta 1955eko Toki-erakundeen Zerbitzuen Araudiko 1etik 17ra bitarteko artikulua.

2. artikulua. Xedea.

Ordenantza honen xedea da bide publikoan terrazak eta instalazio osagarriak (eguzkitakoak, toldoak, etab.) jartzeko araubide tekniko eta juridikoa ezartzea.

3. artikulua. Definizioa.

Aurreko artikuluan esandakoaren ondorioetarako, **terraza** deitzen dira jarduera nagusirako udal-baimena duten ostalaritzako jardueren aldi baterako osagarri gisa ezartzen diren mahai, jarleku eta behin-behineko instalazio mugikorrak.

Mahaiak borobilak nahiz karratuak izango dira, eta ezingo dute 1,5 m² baino gehiago neurtu. Mahai bakoitzeko lau jarleku ezarriko dira gehienez.

Instalazioaren osagai guztien artean armonia gorde beharko da, eta ingurunearen arabera izan beharko dira.

Mahai bakoitzeko eguzkitako bakarria ezarriko da gehienez. Toldorik ez da erabili behar.

4. artikulua. Aldez aurreko baimena lortu beharra.

Bide publikoko instalazio horiek ororen erabilera berezia kategoriatan sartzen dira, eta, erabili ahal izateko, salbuespenik gabe, aldez aurreko udal-baimena beharrezkoa da; azken hori Ordenantza honen arabera emango da.

5. artikulua. Instalazioak jar daitezkeen espazioen izaera.

Terrazak instalatzeko baimena eman ahal izango da, jabari edo erabilera publikoko ondasunen izaera duten espazioetan jartzeko.

6. artikulua. Baimena ukatzeko arrazoiak.

Udal organo eskudunak terrazak eta beren osagarriak instalatzea ukatu ahal izango du, herri-interesak hala exijituz gero, diseinua, kokalekua, bideko segurtasuna, obra publikoak edo beste edozein zirkunstantzia dela-eta.

7. artikulua. Instalazioak ibilgailu-trafikoa duten kaleetako espaloietan.

1. Gehiengo luzaera ez da jarduera nagusiaren egoitzaren fatxada baino luzeagoa izango, baldin eta albokoek idatzizko baimenik ematen ez badute. Alboko etxebizitza eta lokalei pasabidea bermatu behar zaie.

Etxaurretik gutxienez 1,5 metrora ezarri behar dira.

2. Ahal bada, jarri behar dira espaloien ertzean, luzeka, eta bertatik 30 zentimetrora, gutxienez.

3. Libre geldituko den espaloia gutxienez 1,80 metro zabal izango da.

Eguraldi txarra izanez gero, arkupeak edota igarobide estaliak ez dira hartu ahal izango.

8. artikulua. Instalazioak, oinezkoentzako kaleetan.

Baimenak emateko orduan, bai ibilgailuen bai oinezkoen igarotze beharrak kontuan hartuko dira.

9. Artikulua. Instalazioak, plaza eta espazio libreetan.

Terrazak plaza eta espazio libreetan instalatzeko eskaerei kasu konkretu bakoitzaren berezitasunen arabera erantzungo zaie, eta ondoko mugak kontuan hartuta:

a) Etenik gabeko luzera ez da plazaren edo espazio librearen erdia baino luzeagoa izango.

b) Instalazioa ez da plazaren edo espazio librearen herena baino zabalagoa izango.

c) Bertako etxebizitza eta lokalen sarbidea bermatu beharko da.

10. Artikulua. Baimen eskaera.

1. Interesdunak Erregistro Orokorrean alkateari zuzendutako eskaera aurkeztu beharko du, artikulua honetan finkatutako dokumentuekin batera. Eskaera horretan, ondokoak jasoko ditu:

a) Eskatzailearen izena eta abizenak.

b) Datu pertsonalak: Helbidea, telefonoa eta NAN.

c) Jardueraren izena eta kokalekua.

d) Jardueraren datuak (Jarduera Ekonomikoen Zerga, IFK, etab.).

2. Eskaerarekin batera, interesdunak ondoko dokumentuak aurkeztu beharko ditu:

a) Jarduteko udal-baimenaren jabe dela egiaztatzen duen agiria (jarduera baimena edo/eta irekitze baimena).

b) Alboko etxebizitzaren eta lokalen baimena edukitzea beharrezkoa bada, baimena duela egiaztatuko duen agiria.

c) Instalazioak hartzen duen espazioaren nahiko deskribapen zehatza, baita mahai, jarleku, alboko babes eta abarrena ere. Era berean, adierazi beharko dira fatxadaren luzaera eta libre gelditzen den espazioaren zabalera, eta hiri elementuak (zirkulazio seinaleak, zuhaitzak, eserlekuak, zutabeak, hiri-altzariak, etab.) eta instalazioak udal-zerbitzuetan izan ditzakeen eraginak (ura, saneamendua, gasa, etab.).

11. Artikulua. Erabakia.

1. Ordenantza honek eskatzen duen moduan egindako eskaria aurkeztu eta gero, txosten teknikoa ikusita, udal organo eskudunak erabakia hartuko du, legezko epearen barruan.

2. Baimenaren dokumentuan ezarriko dira instalazioa eta osagarrien baldintzak, hartu beharreko espazioa, mahai eta jarleku kopurua, instalazioaren iraunaldia eta egokitze jotzen diren gainerako berezitasunak.

Gehienez 10 mahai jarri ahal izango dira.

3. Eskatutako baimena ematea egokitze jotzen ez bada, edo emandako baimenak eskatutakoarekiko aldaketak baditu, Udalak audientzia

emango dio eskatzaileari, betiere egoki deritzona argudiatzeko aukera eduki dezan.

4.Eskatzaileak jabari publikoa hartzeagatik ordaindu beharreko tasa edo Ordenantza honen arabera ezarritako isunak ordaintzen ez baditu, baimena ukatu ahal izango zaio.

12. artikulua.Baimenaren baldintzak.

1.Baimenak jabetza eskubidea salbu eta hirugarren baten kalterik gabe emango dira, eta ezingo dira erabili onuradunari bere jardueraren ondorioz egokitzen zaizkion erantzukizun zibila eta penala baztertzeko ala gutxitzeko.

2.Udal-baimena beti behin-behineko izaerarekin emango da, eta udal organo eskudunak instalazioak bide publikotik kentzea agindu ahal izango du, zirkulazio, urbanizazio edo herri-interesari dagokien beste edozein arrazoi dela-eta. Gastuak baimendutako instalazioen jabeak ordaindu behako ditu, eta ez du kalte-ordainak edukitzeko batere eskubiderik izango.

13. artikulua.Tasa eta fidantza.

1.Baimendunak dagokion ordenantza fiskalak ezarriko liokeen kopuru eta formako tasa ordaindu behar dio Udalari. Tasa autolikidazioaren bidez kudeatu ahal izango da.

2.Ordenantza honetan ezarritako eginbeharrak beteko dituela bermatzeko, baimendunak, tasa ordaintzearekin batera, 120 euroko fidantza ordaindu beharko du, esku-dirutan. Jarritako fidantza hori itzuli egingo zaio terrazak instalatzeko baimena duenari, erabakitako baldintzak bete dituela egiaztatuta bezain laster.

14. artikulua.Instalazioaren baldintzak

Baimena lortu ostean, titularrak udal-zerbitzu teknikoekin harremanetan jarri beharko du. Beraiek tokian bertan erabakiko dute instalazioak gehienez ere zein azalera har dezakeen.

15 Artikulua. Denboraldia.

—Urtebeteko iraupena.

—Udako denboraldia: Maiatzaren 1etik urriaren 31ra.

16. Artikulua. Ordutegia.

1.Jarduera nagusiarentzat baimendutako ordutegia edozein izanda ere, terrazan erabilera ordutegi honek mugatzen du:

Terrazak bide publikoan jartzeko ordua:

—Goizeko 9etatik aurrera.

Terrazak bide publikotik kentzeko ordua:

Udako ordutegi berezia (ekaina, uztaila, abuztua eta iraila):

—Igandetik ostegunera: 24:00ak arte.

—Ostiraletan, larunbatetan eta jai-bezperetan: 01:00ak arte.

Gainerako hilabeteetako ordutegia:

—Igandetik ostegunera: 23:00ak arte.

—Ostiraletan, larunbatetan eta jai-bezperetan: 24:00ak arte.

2.Udal organo eskudunak terrazak kentzeko ordutegi malguagoa baimendu ahal izango du herri osoan edo toki jakin batean, herriko jaietan eta esanahi bereziko egunetan.

17. artikulua.Instalazioa kentzea.

1. Aurreko artikuluan ezarritako ordutegia amaitzean, instalazioaren jabeak baimendutako material guztia bildu beharko du, eta ezer ezingo da inondik inora bide publikoan gelditu 20 minutu pasatu ostean.

2. Baimendutako materiala kendu ondoren, baimendunari dagokio hartutako lekua erabat garbi uztea.

18. artikulua. Instalazioaren jabearen betebeharrak.

1. Betebehar orokorrez eta ordenantza honen aplikazioak eragiten dituen betebeharrez gain, instalazioaren jabeak baimenduta okupatzen duen lurzorua, instalazioa bera eta bere osagarriak erabat garbi, seguru eta apain mantendu behar ditu. Horretarako, behar den guztia eduki behar du, hau da, paperontziak, hautsontziak, etab.

2. Debekatuta dago kanpoko barrak, bozgorailuak eta musika makinak instalatzea.

3. Instalazioaren jabeak auzokoen lasaitasun eskubidea errespetatzen dela zaindu beharko du; beraz, instalazioan ez du ez iskanbilarik, ez liskarrik, ez eta zaratarik ere onartuko. Arreta berezia jarri beharko du 23:00etatik aurrera.

19. artikulua. Arau-haustekak.

Arau-hauste arinak dira:

- a) Terrazak jartzea erabakitako ordutegitik kanpo.
- b) Gainditzea baimendutako elementuen kopurua (mahaiak, aulkiak edo bestelako osagarriak).
- c) Mahaiak, aulkiak edo osagarriak baimendutako eremutik kanpo ezartzea.
- d) Hartutako espazioa garbi, seguru eta apain ez edukitzea.
- e) Ordenantza honetan ezarritako araudia arin urratzea.

Arau-hauste larriak dira:

- a) Terrazak eta osagarriak baimenik gabe ezartzea.
- b) Hiru arau-hauste arin egitea, zigor-ebazpen irmoarekin, zehapen-espedientearen hasiera egunaren aurreko urtean.

20. artikulua. Zigorrak.

Ordenantza honen urraketak ondoko eskalaren arabera isunen bidez zigortuko dira:

- a) Arau-hauste arinentzat, 60 € eta 150 € arteko isuna, edo/eta baimena baliogabetzea, eta, ondorioz, instalazioak berehala kentzea, Udalaren errekerimenduari obeditu ezean.
- b) Arau-hauste larrientzat, 150 € eta 300 € arteko isuna, edo/eta **terraza** jartzeko baimena eskuratzeko aukera kentzea etorkizunerako, ordenantza honek araututakoetan, bi urteko epean, gertakarien larritasunaren arabera.

21. Artikulua. Udal-baimenik gabeko instalazioak.

Udal organo eskudunak, interesdunari audientzia eman ostean, berehala kendu ahal izango ditu baimenik gabe ezarritako terrazak, eta araudian xedatutako zigorrak ezarri.

22. Artikulua. Betezarzte subsidiarioa.

Instalazioaren arduradunak ez badio kasurik egiten Udalak emandako aginduari, bide publikoan jarritako elementuak kentzeko, ordenantza honetan xedatutako kasuetan, Udalak berak kenduko ditu eta udal biltegian jaso. Jabeak bere elementuak handik hartzeko, bidezko tasak ordaindu beharko ditu lehendabizi.

ALDI BATERAKO XEDAPENA

Lehena.

Ordenantza hau indarrean sartu baino lehen emandako baimenek emandako baldintza beretan jarraituko dute.